

Alkatearen probidentzia

Oñatiko Udalak Lurralde Antolaketako AOT aldi baterako programa sortu zuen eta bertan izendatuta zegoen langileak ukoa aurkeztu duenez, lan-poltsak eskatu dira eta ez da inor kontratatzea lortu. Horregatik guztiagatik Lanbidera jotzea erabaki da.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere 58. artikulua dio:

“1– Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.

2– Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3– Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4– Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoetaz baliatzeko aukera egongo da.”

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, argiketaria ofizialaren postua betetzeko, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, 10.1.b artikulua arabera, ordezkatzeko langilearen absentziak irauten duen bitartean, lanpostua gordetzeko eskubidearekin (2720/1998 Errege Dekretua, 4. Artikuluan), enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan-kategoria horretako hautagaiak aukeratuz. Hileko soldata gordina ordezkatzeko duen langilearen lanpostukoa izango da, parte proportzionalan.

2.- Honako profil hau eskatzen da:

Lurralde Antolaketako AOT (A1) lanpostua betetzeko:

Izendapena: aldi baterako programa

Jardunaldia: %100

Hileko soldata gordina: Lurralde Antolaketako AOTari dagokiona

3.- Hautagaiak hautatzeko beharrezko baldintzak:

- Zuzenbidean, Ekonomian, Politika Zientziak eta Kudeaketa Publikoan edo Enpresen administrazioa eta zuzendaritzan Gradua edo baliokidea
- Euskara 4HE

4.- Merezimenduak

4.1.- Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak (gehienez 5 puntu):

- Lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak (0.5 puntu/orduko)

4.2.- Titulu akademiko ofizialak (gehienez 5 puntu)

- Deialdian parte hartzeko beharrezkoa denaz bestelako tituluak, betiere erabilgarriak badira deituko lanpostuan aritzeko. Epaimahaiak baloratuko ditu egokiak diren edo ez, baina beroriei eman beharreko puntuak ere, baina ezin izango du, inolaz ere, 2 puntu baino gehiago eman goragoko titulu bakoitzeko eta puntu 1 maila bereko titulu bakoitzeko. Lanpostuaren kompetentzien artean kanpoko hizkuntzak beharrezkoak badira titulu ofizialak gehienez ere 3 puntuen balorazioa izango dute eta hizkuntzak 2 puntu.

4.3.- Lanbide-esperientzia (gehienez 10 puntu):

- Deitzen den azpitaldea eta lanpostua bera denean → 0,20pt/hilea
- Azpitaldea goragoko edo beheragokoa denean, baina lanpostu/sail berdina → 0,15 pt/hilea
- Azpitalde bera baina lanpostu/sail ezberdina → 0,12 pt/hilea
- Goragoko/beheragoko azpitaldean eta lanpostu/sail ezberdinean → 0,09 pt/hilea
- Enpresa pribatuan (hala irizten denean) → 0,05 pt/hilean

4. Epaimahaikideak:

GGBB eta Antolaketako arduraduna
Lurralde Antolaketako arduraduna

Oñatin, sinadura elektronikoan agertzen den datan
Alkatea
Sin.: Izaro Elorza Arregui Andrea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Lurralde antolaketa AOT lanbide bitartez
CSV/EKS:	SINA9b6b5e4b-f0ce-44f4-85b3-0f4cfefc465d